



Virginia López de Maturana eta Santiago de Pablo.

Arabako sinboloak: babazorroetatik harago

Santiago de Pablok eta Virginia López de Maturanak Arabako sinbolo, mito eta oroimen-lekuen bilduma ondu dute

BILDUMA

JOXEME LÓPEZ DE ARANA

bide beretik eta fokua areago itxiz, 'Alava insólita. Símbolos, mitos y lugares de memoria' kaleratu berri dute Sancho el Sabio Fundazioaren sostuguekin.

Historiografiaren ibilbidea, gaingiroki, Historia Handiko mugarrin azalpen eta interpretaziotik eguneroko bizimoduaren azterketetara pasatu zen garai batean; azken garaioan, berriz, giza eta gizarte zientzietako txoko guztietan eragin duten 'Cultural Studies' direlakoan eraginez inondik ere, ukiezin, materiagabe edo immaterialeak diren elementuak aztertzeari ekin diote historialariek, beren arloetan literaturakritikariek eta bestek egin duten bezalaxe.

De Pablok eta López de Maturanak liburuko hitzaurrean adierazten duten giza berean, azken hamarkadetan historiografiaren gertatutako biraketa kulturalistaren eragina izan da hori guztia; hau da, haien errealitate historikotik harago indar emozional handia duten eta gizarte bakoitzaren ia zera iraxtatzen

laguntzen duten elementuak dira gaur eguneko azterbide jakin horren jomuga: identitateak, sinboloak, errepresentazioak, errituak, oroimen-lekuak, mitoak eta abar. Frantzia eta Alemaniako kasuak aipatzen dituzte adibide nabarmenentzat, eta bide berean Espainian ere saio mugatuago batzuk egin dira laineratu.

Arabako kasua

Egile bien aurreko idazlanek, esan bezala, aipatutako bide horiek eremu zabalagoetan jorratu eta gero, Arabako kasura aplikatu dute azterbidea. Ikerketa lan horretan atentzia eman didan lehen kontua 'ezohiko' iturrien aniztasuna da. Gauza jakina da Sancho el Sabio Fundazioaren dokumentazio zentroa, gaur egun Betoñuko Atean kokatua, munduko garrantzitsuenetarikoa dela euskal gaietako dokumetu asko eta arakatu dituzte egileek: liburu, aldizkari eta egunkarietatik pegatina, kartel, argazki eta

panfletoetara. Baina, gainera, sarrera asko eta askotan, webguneak, blogak eta ikusentzunezkoak ere saritan aipatzen dira. Gainera, beste biblioteka eta agiri-tegi batzuetan ere ibili dira Arabako balizko sinboloen azterki.

Emaitza fisikoa liburu dotore bat da, couché papezez fabrikatua, koloretako irudi eta argazki ugaziz hornitua... Nolabait esateko, ikerketan lan batek dibulgaziozko liburu baterako bidea hartuta, bere arloko salmenta ugariako izan nahi duenaren itxura batera egina.

Liburuak 138 sarrera ditu, gehienak aski laburrak, orrialde bat eta hiru bitartekoa; eta zazpi ataletan banatuta dago (itzulpenak, nireak):

«Identitateak ia inoiz ez dira itxiak, eta askotan borroka nabarmenean azaltzen dira»

'Jaiak, ikonoak eta herri tradizioak', 'Historia luze bat: Foruen arastoa', 'Lurraldeko mugariak', 'Pertsonaia historikoak', 'Itzala utzi zuten pertsonaia', 'Gerra Zibilekiko demokraziara' eta 'Tradizioaren eta modernitatearen artean'.

Atalotan Araba markatu duten era guztietako sinboloak aurki daitezke, hitzaren zentzurik zabalenean, zein bere azalpen argigarriarekin eta irudi ilustratzailearen bidez lagunduta. Alde batetik, berezko sinboloak, noski: Arabako eta Gasteizko armari eta banderak, Andre Maria Zuria, Estibalziko Ama Birjina, Olarizu, arabar patata, Fournier...

Besteak, arabar gehienek kale-izendegian bitartek baino ezagutzen ez dituzten pertsonaia: Herrandarrak, Cancellor Ayala, Francisco de Vitoria, Justo Antonio de Olaguibel, Felix Maria Samaniego, General Alava, Prudencio María Verastegui, Ramon Ortiz de Zarate, Manuel Iradier, Mateo Benigno de Moraza, Eduardo Dato eta beste asko.

Beste alde batetik, arazoaren batengatik garrantzitsuak izan diren arabar tokiak, mugariak: Gorbeia mendia, Santa Maria katedrala, Gebarako gaztelua, Egilazeko trikularria, Iruña-Veleia, Maieru gorretako kobazuloak, Armentia, Trebiño eta abar.

Gertakari historikoak ere dira falta, hala nola «Voluntaria Entregaa» delakoa, Gasteizko gudua, Legutioko gudua, Martxoaren 3a...

Eztalabaida

Egileek hitzaurrean onartzen duten legez, identitateak ia inoiz ez dira itxiak, eta asko-

tan borroka nabarmenean azaltzen dira. Hala ere, diotenez, Arabaren kasuan ez dute ahalegin handirik egin behar izan Lurralde Historikoan agertutako askotariko ideologien arteko oreka bilatzeko. Hala izango da, beharbada, aspaldidanik idatzitako historiari dagokionez (ezarritako ideologian goxo ibiltzen direnak izan ohi dira historikoki ezbai eta eztabaidarik izumaten ez dutenak). Alde horretatik, kale-izenen adibidera itzulita, garaiaren arako ideologiaren arabera, kaleen izenak erabaki dituztenek nolabaiteko historia edo kontaera jakin bat ezarri dute, dagoeneko inor gutxi harrigarri gertatzen ez zaiena (aldiz, esate baterako, nik dakidala, ingurutan inon ez dago Charles Darwin izeneko kalerik).

Araoa sortu eta biziagotu egiten da, noski, denboran hurbilago gatozen neurrian. Oraindik bizirik gauden herriarrok bertatik bertara ezagutu ditugun sinbolo, pertsona, toki eta gertaez guztiak nekez dira partekatuak eta adostuak.

Alde horretatik, 'Tradizioaren' eta modernitatearen artean' azken atalerako aukeratu direnak ez dira guztien gustukoak izango (ezta literalki ere, beharbada: arabar patata, Arabar Errioxako ardoa, Vasquitos y Nesquitas, pintxo-potea...), ideologiak ideologia; hor daude, esaterako, 'Círculo Vitoriano' delakoa, Araba euskaraz, FestiVal telesaia jaialdia, Azkena Rock eta beste. Ikuspegi horretatik, gustuko ez dugunari entzungor egin diezaiogeku. Falta sumatu duguna, ordea, ezin erantsi.